



AEROBIKA 2022

ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Gimnastika Federazioarekin batera, 2022ko maiatzaren 28an Euskadiko XXXIX. Eskolarteko Kirol Jokoak antolatuko ditu Gasteizko Abetxuko Udal Kiroldegian (Araba), ondorengo araudiaren arabera:

1. ADINAK ETA KATEGORIAK

- 2008-2009 urte bitartean jaioetakoak infantil, eta 2010-2011 urte bitartekoak alebinak.
- Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

2. TXAPELKETA MOTA

- 4 – 8 kidez osatutako taldeak (mistoak edo ez)
- Hirunaka
- Binaka (mistoak edo ez)
- Banaka

Oharra

- Gimnastek bi modalitatetan soilik parte hartu ahal izango dute.
- Konpetizio gunea: 10x10 metrotako azalera lisoa talde eta hirukoteentzat bi kategoriatan eta infantil mailako besteetan, eta 7x7 metrotako alebin mailako banaka, binaka eta hirunaka. Konpetizio azalera marrazten duen 5 zm-ko zabalerako marra batez inguratuak.
- Ariketen iraupena minutu 1 eta 15 segundokoa alebin mailan eta minutu 1 eta 20 segundokoa infantil mailan izango da. Ariketa osoa musikarekin egin behar da.
- Jantzkerak FIG kodearen arabera izango da (mediak beharrezkoak izango dira)



EUSKADIKO XXXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK **XXXIX JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI**



- Zapatilak txuriak izan beharko dira.
- Euskadiko Txapelketarako kategoria bakoitzeko lehenengo 5 taldeak klasifikatuko dira, binaka, hirukote eta taldeen artean banatuak.
- Txapelketa aurreko astean musika federaziora bidali beharko da, helbide honetara: musicasfvg@gmail.com

3. KIROL SARIAK

Ondorengo kirol sari hauek egongo dira:

- 4 - 8 kideetako taldeak: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. taldeei emango zaie.
- Hirukoteak: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. hirukoteei emango zaie.
- Binaka: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. bikoteei emango zaie.
- Banaka: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. ei emango zaie.

4. EDOZEIN EZUSTEKOREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

5. AZKEN OHARRA

Araudi honetan jasotzen ez diren kasuak Euskal Federazioaren lehiaketa-batzordeak erabakiko ditu eta bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2022ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak, 2022ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2022ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIX. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena..

f.- Euskadiko gimnastika (Aerobik) federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezker, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.